



Familian hezteko modu desberdinak, bada jarraibide bateraturik?

«Familiako kideen garapenean, familiak berak duen egiturak baino, familia artean ematen diren harremanen kalitateak eragina du».

Familia bakoitza desberdina da. Familia osatzen duten pertsonak, inguruan dituen baldintzak/baliabideak eta familiak berak propio dituen ezaugarriak (gaitasun, baliabide, zailtasun...) berezituak dira. Garatu eta ezartzen diren harreman afektiboak edota eratzten diren familia-dinamikak, ohiturak, antolakuntza ereduak desberdina da familia bakoitzean, baita transmititzen diren arauak eta baloreak.

Gehionok, seguruenik, baieztape horrekin ados egongo gara, baina, hala izanda ere, batzuetan ez errespetatuak sentitu gara. Pertsona guztiak noiz edo noiz epaituak sentitu gara seme-alabak hezteko momentuan (parkean, lagunartean, eskolan, familia zabalean –aitita-amamak, izeko-osabak- etab...)

Gure gizartean harremanak errazten ez dituzten estereotipoak, susmoak, igurikapenak, etiketak edota aurreiritziak daude. Kultura aniztasunak eta ikuspuntu desberdinak barneratzeak aberastu egiten gaitu. Bizi eredu desberdinak ezagutzera garamatza eta pertsonekin errespetuzko harremanak ezartzera.

Familia baten egoera ezagutzeak empatia sortzen eta ez epaitzen laguntzen du. Orain gutxi egindako ikerketek, urteetan zehar gehien errepikatu den familia binomio “tradizionalari” erantzuten ez dieten hainbat eta hainbat familien pertzepzioa zein den aztertu dute.

Gero eta familia eredu gehiagok lortu dute gizartearen eta erakundearen onarpena. Pixkanaka-pixkanaka errekozimendu legalaren akordioak lortzen doazen heinean, familia hauen eguneroko bizitza errazten doa.

También nuestras familias son todas diferentes.



Gaur egun gure gizartean maiztasun gehiagorekin aurki ditzakegun familia egituren artean, esanguratsuenak hauek direla esan daiteke:

- **Familia nuklearrak¹:** gizon eta emakume batez osotuak. Maiztasun handienarekin ematen den familia egitura da, seme-alabak izan ditzakete edo ez. Gero eta ohikoagoak diren bikote egonkorak (ezkontzako izapideetatik pasatu gabekoak) ere familia egitura mota honetan sartzen dira.
- **Guraso bakarreko familiak:** aita edo ama batez osotuak direnak, azken hau ohikoagoa izaten da, banantze, dibortzio, alarguntasun edo ama ezkongabeetatik eratorritakoak. 18 urte baino gutxiagoko seme edo alabekin bizi dira eta amona, aitona edo neba-arrebekin batera bizi daitezke.
- **Familia berregituratuak:** Aurretik beste familia bat izan duten pertsonen osotuak izaten dira, bikotekide berri batera lotzen direnak, heldu bakoitzak aurreko loturatik seme-alabak ekarri ditzake edo ez.
- **Adopziozko familia eta denbora mugatuzko harrera familiak:** familia hauek aurretik seme-alaba naturalak izan ditzakete edo ez. Familia handitzen dute.
- **Familia homoparentalak:** Sexu bereko bikoteak dira, eta bakarrik edo ernalketa artifizial edo beste bide alternatibo batzuen bidez izandako seme-alabekin bizi dira.
- **Familia kultur anitzak:** ingurune kultural desberdinetatik eratorritako pertsonen arteko loturak izaten dira, non harrera herrian familia bat eratzen duten.

Familia eredu guzti hauek beharrian eta ardura zehatzak dituzte. Hala ere, helburu berdina bat dute: familiako kide guztien garapen osasuntsurako oinarrizko funtzioak bermatzea. Familiak baliabide ekonomikoak ditu, seme-alaben hazkuntzan inplikatu da, hezkuntza aukerak ematen ditu, bizitza osoan zehar iraungo duten lotura afektibo sendoak eskaintzen ditu eta gainera, hartu-emaneko harremana ematen den eta bizitzako arazoei aurre egiteko lagungarria izaten den talde batekiko kide izatearen sentimendua transmititzen du. Horrela, edozein familia-egitura izanda ere, gurasoen zeregina familia kideen arteko harreman positiboak sustatzean datza, harremanok guraso erantzukizunen jardunean oinarrituak direlarik, adinez txikiaren eskubideak bermatzeko eta ongizate eta gaitasuna optimizatzeko (gurasotasunaren printzipioak).

«Familia tradizionala egokiena dela adierazteak ez du inolako funtsik. Familia egitura anitzak atzeraezinezkoa den gizarte dinamika baten isla dira. Ikerketa anitzek bermatzen dute familia arteko harremanen kalitateak familiako kideen garapenean gehiago eragiten duela familiako egiturak berak baino».

1* Aurreko edozein familia egitura famili ugari izan daiteke, betiere heldu bat edo bi eta bi edo hiru seme/alabez osotua dagoen, hauek bikoteariak izan daitezke edo ez, baita legearen aurrean onartu daitezkeen beste kasu batzuk.

Hala ere, familia bakoitzean badira ezagutu beharreko aspektu berezituak:

Adibidez, berreraikitako familietan, adin txikikoen zaintzaz arduratzen diren helduen arteko koordinazio eta komunikazio handiagoaren beharra izaten dute; baita jatorrizko familian ematen diren gatazkak ondo kudeatu beharra ere; eta familia-sistema berrien adostu beharrekoen garapena ere bai: bikote berriarekiko, anaia-arrebaordeekiko, aitaorde edo amaordearekikoa.

Kultura desberdinak batzen dituen familiaren kasuan, kultura biak errespetatu eta adin txikikoaren hezkuntzan bateratu behar dira. Aniztasuna aberasgarria izateko, desberdintasun kulturalak leundu behar dituzte: irizpide bateratuak ezarri, seme-alaben ongizatea lehenetsiz.

Aurreko hauek adibide batzuk baino ez dira eta beste hainbeste ezaugarri dituzten familiak deskriba badaitezke ere, oro har, familia orok honakoa izan beharko luke gogoan:

«Familia orok ditu indar-guneak, familia orok bilatzen du beraien seme-alaben zoriontasuna, familia orok bihotz onez jokutzen du, familia orok ditu gainditu beharreko zailtasunak, esfortzu handiarekin edo kanpoko laguntzarekin gainditzen dituenak. Familia oro indartsuagoa da talde bezala jarduten duenean».


Guzti honi buruz hitz egiteko, **Leioako Kultur Leioan, Apirilaren 26ean, astearte arratsaldean, 18:00etan**, Leioa Udalerriko gurasoentzako hitzaldi-tailerra izango da. Bertan, seme-alaben garapen psikologiko ona zer den partekatzeko eta kontrastatzeko aukera izango dugu. Horrez gain, gaur egungo familia-aniztasuna kontutan hartuta, egunerokotasunean aurrera eraman daitezkeen aholku praktikoak ezagutzeko aukera ere.

- ✓ **ETXADI.** 0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako doako Orientazio Zerbitzua. **Egin zure kontsulta telefonoz** (944051549. Ostegunero: 11:30etatik 13:00etara eta 16:00etatik 17:30etara) **edo Leioako Udaleko webguneko inprimakia betez**

PSIKOLAGUN <http://www.leioa.eu/>



Gomendatutako bibliografia:



Koordinadoreak: Enrique Arranz Freijo - Alfredo Oliva Delgado



Gómez, M; Nazareth, Carla. (2015). Un mundo de Familias. Editorial Comanegra.



Canyet, Glória; Bellvehí Bel. (2011). Familium XXI.



Rigbyne, Jill. (2013). Educar Hijos Respetuosos En Un Mundo Irrespetuoso. Lumen Humanitas argitaletxea.



Pirritx eta Porrotx: Familien Karta-Jokoa